

120/2013 Ebazpena, 2013ko martxoaren 20koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariarena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzen da aldi baterako kontrataziorako 2008ko indarreko zerrenda eguneratuak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren bitartez (EHAA, 106. zk, 2011ko ekainaren 6koa), Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aldi baterako kontratazio zerrendak, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik datozenak, egin eta kudeatzea arautzen da.

Erabaki horren 18. atalean ezarritakoaren arabera, azken EPEan (2008ko EPE) deitu ez ziren kategoria/lanpostu funtzionalei dagozkien zerrendak aldatu egin daitezke, hizkuntza-eskakizunak eguneratzearen ondorioz. Hori dela-eta,

EBATZI DUT:

Lehena.- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web orrian argitaratzeko agintzea aldi baterako kontrataziorako eguneratutako 2008ko zerrendak, bakanteen eta ordezkapenen zerrenden modalitateetan, 2008ko Enplegu Publikoaren Eskaintzan deitu ez ziren kategorietan.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko martxoaren 20a.

Sin.: José María Armentia Macazaga
OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO

